



ESKOLA ALDIRIAK. HEZKUNTZA KOMUNITATEARENTZAKO PROIEKTUEN DEIALDIA 2019-2020

Zer harreman eduki nahiko genuke gure komunitate hurbilenarekin? Zein erronkari egin behar diogu aurre hezkuntza-komunitatea garen neurrian? Nola irudikatzen dugu aritu beharko ginatekeela inguruko beste agente batzuekin lankidetzan gure praktika eraldatzeko? Nola eragin dezakete praktika artistikoek elkarrekin ikasteko prozesu horietan?

1. AURKEZPENA

Eskola aldiriak deialdiaren helburua da eskolarekin arteari eta hezkuntzari buruzko lankidetzaproiektu bat garatzea. Lan egiteko moduak berriz pentsatzeko aukera ematen du eta hezkuntza-komunitatea indartzen duten ikasketa-prozesuak martxan jartzekoa.

Proposamenek honelako erronketan eduki behar dute oinarria: elkarbizitza, espazio publikoa erabiltzea, auzoarekiko harremana, hezkuntza-proiektuan hezkuntza-komunitatea inplikatzea (gurasoak, ikastetxeko langileak...) eta metodologia pedagogiko berriak praktikan jartzea.

2. LAN-ESPARRUA / TESTUINGURUA

Tabakaleraren asmoa da hezkuntza-proiektuak eta prozesu esperimentalak sustatzea, kultura garaikidea eta praktika artistikoak hausnarketarako eta ikaskuntza-prozesu kolektiboak garatzeko tresnak izan daitezen.

Arte garaikidea funtsezko tresna da pentsamendu kritikoa ahalbidetzeko eta inguruko gai giltzarrien gainean hausnartzeko, eta honelako topaketek



dirdirak sor ditzakete mundu honi begiratzeko modua zabaltzeko eta konplexuago bihurtzeko.

Proiektu honetan, eredu eta praktika artistiko berriak ezagutu ditugu, ikaskuntza-dinamika erakargarri eta esanahitsuen bidez (...). Eskolako botere-harremanak orekatzen lagundu digu, parekidetasunaren beharra sentitzen, bai ikasleei eta bai irakasleei.

Gurutze Jauregi. Txirrita eskolako ikasketaburua (2017/2018)

3. ORAIN ARTE EGINDAKO PROIEKTUAK

2014/2015 ikasturtean, Auzoko Hitzak proiektu pilotua egin zen. Ordutik, martxan jarri zen urteroko deialdia, eta proiektu hauek garatu dira:

2015/16: *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara*, Jakintza ikastola (Antigua, Donostia)

2016/17: *hilHERRIbizi*, Lauaizeta Ikastola (Intxaurren/Egia, Donostia)

2017/18: *Harremangune*, Txirrita Eskola Txikia (Ereñotzu, Hernani)

2017/18: *Gelditu, Lasaitu eta Bizi! Eskola bideak*, Arizmendi Ikastola (Eskoriatza)

2018/19: *Zubiak eraikiz. Komunitate esparru berriak sortzen.*
UPV/EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea (Donostia)

2018/19: *Jolastu, jolastu eta jolastu.* Samaniego Herri Ikastetxea (Tolosa)

Proiektu guztiak hemen kontsulta daitezke: www.tabakalera.eu/eu/eskola-aldiriak

4. HELBURUAK



Eskola Aldiriak proiektuaren helburu nagusia da hezkuntza-komunitatearen eta haren ingururik hurbilenaren arteko harremanen gainean hausnartzea, bitartekaritza-prozesu baten bidez indartzeko. Testuingurua ikaskuntzarako eta ekintzarako tokizat hartzea da.

Erlazionatutako helburuak:

- Eskolako gatazkei, desioei eta beharrei erantzun berriak proposatzea.
- Ikasleen interesak sartzeari proposamenaren motor nagusitzat.
- Aldaketa-proiektuak egitea, inguruko beste agente batzuekin parte hartzeko dinamikak eta metodologia artistikoak erabiliz.
- Auzoko espazio publikoak eta hiria berreskuratzea harremanetarako lurralde moduan.
- Prozesu komunitarioak eta lan kolektiboa sustatzea.
- Sorkuntza artistikoa sartzeari ikastetxeko hezkuntza-proiektuan.

5. METODOLOGIA

Proiektuak lau fase ditu:

0. fasea

2019ko ekainetik uztailean

- Lantaldea trebatzea, hautatutako proiektua aurkeztu dutenek, Tabakalerako hezitzaile batek eta hautatutako artistak osatutakoa. Ikastetxearen eta hautatutako proiektuaren ezaugarrien arabera, lantaldean sar daitezke ikasleen ordezkariak.
- Proposamena lurreratzea. Denbora, rolak eta metodologia definitzea.



1. fasea

2019ko irailetik abendura

- Proposamena gainerako irakasleei, eskolako profesionali eta inplikaturako agenteei helaraztea.
- Elkarrekin prestatzeko saioak.
- Egutegia, metodologia eta saioen edukiak zehaztea.

2. fasea

2020ko urtarriletik maiatzera

- Garapena: aldeztutako adostutako dinamikak eta saioak jarriko dira martxan. Fase horretan, ikasleak proiektuaren parte-hartzaile izango dira (edo gainerako ikasleak, ordezkariak badaude aurreko saioetan).

3. fasea

2020ko ekaina

- Sozializatzea: proiektua komunitatearekin partekatze beste modu batzuk bilatuko dira.
- Ebaluazioa eta dokumentazioa: ebaluazioa proiektuaren garapenean, entzuteko sortutako uneetan, eta bukaeran egingo da, inplikaturako agente guztiek parte hartuko duten ebaluazio bateratuan. Horrek aukera emango du kontuan hartzeko zer gertatzen den esperientzian, proiektua berriz bideratzeko eta bukaerako balorazio bat izateko, handik abiatuta pentsatzeko deialdiaren noranzkoa, eta hurrengo ediziorako doitzeko.



- Zabalpena: prozesua egin bitartean, proiektuaren berri emango da Tabakalerako webgunean eta haren sare sozialetan, baita parte hartzen dutenen plataformen bidez ere.

6. PROIEKTUAREN OINARRIAK

Norentzat da?

Donostialdeako hezkuntza-komunitateei (irakasleak, ikasleak, hezkuntza-agenteeak...), goian azaldutako lan-lerroen esparruko proiektu bat aurkeztu nahi badute.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, institutuak, LHko ikastetxeak... aurkeztu ahal izango dira, publikoak zein pribatuak, inguruko beste agente soziokultural batzuekin batera. Ikastetxeari dagokionez, ez da beharrezkoa ikastetxeko ikasle guztiek parte hartzea; aukera dago mailaka aurkezteko (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...), edo hainbat mailatako talde batzuk bakarrik.

Zer proposa daiteke?

Hezkuntza-komunitateko behar partekatu batetik abiatutako proiektuak bidali ahal izango dira. 2019/20ko edizioak arreta berezia jarriko dio praktika artistikoen metodologiatik abiatuta eskolako harremanen eta ikaskuntza-prozesuen gainean lan egitea proposatzen duen proiektu bat aukeratzeari. Ildo horretan, gai hauek landu ahal izango dira: eskolako harremanak indartzea, edo komunitate bereko hainbat eskolaren artekoak, aniztasuna (kulturala, sexuala, intelektuala...), gatazkak eta tentsioak, pertsonen arteko harremanak, eskolak ikasteko moduak... Hortik abiatuta, proiektuak ikastetxe eta testuinguru bakoitzaren berezitasunei erantzun beharko die.

Aurkezteko epeak eta garapena:

Deialdia 2019ko maiatzaren 10etik 31ra egongo da irekita.

Ebazpena 2019ko ekainaren 7an argitaratuko da.



Hautatutako proiektua 2019/20ko ikasturtean garatuko da.

Garrantzitsua: “Metodologia” atalean adierazten den moduan, talde eragilea 2-3 aldiz bilduko da 2018/19ko ikasturte amaieran, proposamena definitzen hasteko.

Hautatzeko irizpideak

Hautatze-prozesuan, deialdi honen oinarriarekin eta Tabakalerako lan-lerroekin bat datozen prozesuak baloratuko dira. Proiektua hautatzeko epaimahaia artearen eta hezkuntzaren esparruari lotutako kanpoko hiru agentek osatuko dute: Begoña Olaskoaga (Donostiako Berritzegunea), Alaitz Sasiain (UPV/EHU) eta Nerea de Diego (Huarte arte garaikideko zentroa). Tabakalerako bitartekaritza-taldeak hitz egin ahal izango du, baina ez bozkatu.

Balorazio-irizpideak

- Proiektua bideragarria izatea eta aurkeztutako ideiak sendoak izatea.
- Proiektuak interesa piztea ikastetxearen eta auzoaren inguruan: komunitate horretan pertsona askori eragiten dion gai batetik abiatzen gara, edo gutxi batzuen beharraziei erantzuten die?
- Agente batek baino gehiagok duten behar batetik abiatzea.
- Proiektuak beste agente batzuekiko lankidetzaren eta sare-lana sustatzea (auzoa, hezkuntza-komunitatea).
- Ikastetxea eta agente parte-hartzaileak prest egotea ohiko metodologiak eraldatzeko eta lan-estrategia berriak abiatzeko.
- Aurreko edizioetan landu ez diren gaiak baloratuko dira.



- Ikastetxeak eta agente parte-hartzaileek gaitasuna izatea beste bitarteko eta baliabide batzuk bilatzeko proiektua garatzea babesteko.
- Gaitasuna izatea proiektua autonomoki jarraitzeko deialdiaren esparruko garapena bukatu ondoren.

Tabakaleraren konpromisoak

- Proiektua garatzeko giza baliabideak ziurtatzea. Horretarako, hezitzaile batek eta artista batek lagunduko die eskolan inplikaturako agenteei proiektu guztian.
- Parte hartuko duen artista iradokitzea, harremanetan jartzea eta proiektuko parte-hartzea kudeatzea (artista proiektuaren ezaugarrien eta beharren arabera aukeratuko da).
- Proiektua diseinatzea, horren garapenean parte hartzea eta jarraipena egitea. Lantaldearekin batera, hezitzaileak ikastetxeko lan-saioak eta dinamikak diseinatu eta garatuko ditu.
- Proiektua egoki garatzeko baliabide ekonomikoak ematea. Horretarako kopurua ez da 8.000 € euro baino gehiago izango, ekoizpenaren eta artista parte-hartzaileen ordainsarien kontzeptuan.
- Jarraipena eta zabalpena egitea Tabakaleraren komunikazio-euskarrietan eta sare sozialetan, komunikazio taldeak bere komunikazio-estrategiaren baitan egoki ikusten duenean.

Ikastetxeen eta parte hartuko duten beste erakundeen konpromisoak

- Aurkeztutako proiektua burutzea. Ikastetxeak konpromisoa hartzen du prozesuan aktiboki parte hartzeko, bukatu arte.
- Lantalde bat izendatzea, edo arduradun batzuk, proiektua bideragarri izan dadin. Horri dagokionez, proiektuak ikastetxeko zuzendaritzaren babesa izan beharko du.



- Malgutasuna lan-dinamikei, guneei, ordutegiei eta antolakuntzari dagokionez, eta talde eragileak erabakitakoa errespetatzea.
- Eskolaren edo komunitatearen baliabideak eskaintzea: oinarritzko materiala, eskolako guneak, kontaktuak, sareak...
- *Eskola Aldiriak* proiektuaren hurrengo deialdiko hautatze-epaimahaian egotea (Tabakalerak eskatuz gero).

Aurkeztutako proiektuen arabera, Tabakalerak beretzat gordetzen du deialdia hutsik uzteko eskubidea edo oinarrien zati bat aldatzekoa, betiere hautatutako proiektuetan inplikaturakoekin bat etorriz.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak PDF formatuan (gehienez 10 orr.) bidali beharko dira posta elektronikoko bidez hezkontza@tabakalera.eu helbidera, e-mailaren gaian honako hau zehaztuz: “Deialdia: Eskola aldiriak”.

Proposamenek puntu hauek barne hartu ditzakete:

1. Proiektu-ideiaren deskribapena.
2. Nondik dator proiektu-idea? Zer testuingurutan sortzen da ideia hau?
3. Zein irakasgai edo curriculumaren edukiarekin lotuko zenukete proiektua?
4. Proiektu hau garatzeko inguruko zein eskola, eragile edo elkarterekin lan egitea planteatzen duzue?
5. Zergatik nahi duzue proiektu hau Tabakaleraren kolaborazioarekin garatu?
6. Aurretik egindako beste proiektu batzuk
7. Oharrak

TABAKALERA



Info+:

hezkuntza@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA
—

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA
—

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE
—

tabakalera.eu
—